



Bergarako
Udala

ONHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAREN ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Bergaran, 2020ko abenduaren 1an

SINATZAILEAK

Alde batetik, **GORKA ARTOLA ALBERDI**, Bergarako alkatea, Udalaren izenean ari dena, indarrean dauden legeek ematen dioten ahalmena eta ordezkaritza erabiliz.

Bestetik, **AMAIA ETXABE GOIKOETXEA**, **ONHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTE**ko presidentea (Helbidea: Nafarroa Etorbidea 23-1, 20500 ARRASATE. IFK: G-75237701), eta erakunde horretako ordezkari dena.

Bi aldeek behar adinako gaitasuna aitortzen diote elkarri honako hitzarmen hau sinatzeko, eta,

ADIERAZTEN DUTE

• **ONHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTE**ak hainbat urte daramatza lanean, haurren hezkuntza eta aisialdia beste modu batera antolatzeko moduak aztertzen, teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik; benetako partehartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin. **ONHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTE**ak zazpi printzipiotan oinarritzen du bere xedea eta honela formulatzen du: *Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.*

• Bergarako Udalak guztiz bat egiten du xede horrekin abiatutako lanarekin eta bide bat egin nahi du, **ONHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTE**arekin lankidetzan, elkartearen helburu, printzipio eta lan-ildoak Bergaran garatzeko.

Hori hala izanik, alde biek komenigarritzat jotzen dute elkarlanari ekitea eta, horretarako, **hitzarmen hau sinatzea erabakitzen dute**, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

1.- Hitzarmenaren xedea.

ONHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEaren jarduera eta proiektuak finantzatzeko diru-laguntza zuzenaren baldintzak arautzea eta elkarlanerako markoa finkatzea, elkartearen helburu, printzipio eta lan-ildoak Bergaran garatzeko.

Horretarako elkarteak garatzen duen lanketaren eta bertako irizpideen berri emango dio Bergarako Udalari, honek baliagarria zaiola irudituz gero, martxan jarri ditzakeen haurren zerbitzu eta ekitaldietan kontuan izateko.



Bergarako
Udala

2.- OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAren betebeharrak.

Hauk dira OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAren betebeharrak:

- OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAk laguntza emango dio Udalari, elkartearen helburu, printzipio eta lan-ildoak Bergaran aplikatzeko abiatuko duen bidean.
- OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAk herrien arteko esperientzien trukea erraztuko du, horretarako sorturiko webgunea baliatuz (www.herrihezitzailea.eus) eta urtean sarea osatzen duten herrien arteko 2 bilera antolatuz.
- OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAk trebakuntzarako eta ezagutza konpartitzeko jardunaldiak antolatuko ditu.



3.- Bergarako Udalaren betebeharrak.

Hauk dira Bergarako Udalaren betebeharrak:

- Diru-laguntzaren ordainketa zehaztutako modu eta garaian egitea.
- Herriak aurrera eramango dituen egitasmo, ekintza eta abarretan OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAren printzipioak lantzeko konpromisoa hartzea.

4.- Diru-laguntzaren kopurua eta ordaintzeko modua.


Diru-laguntzaren kopurua, guztira, 4.000 eurokoa izango da.

Diru-laguntzari dagokion %60, 2.400€, hitzarmena sinatutakoan ordainduko da eta gainontzeko %40, 1.600€ urtean elkarteak egindako lanketaren txostena aurkeztutakoan.

OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAk ezin izango du jaso, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostuaren %100etik gorako diru-laguntza publikorik. Bi aldeek hitzarmena luzatzea erabakiko balute, aurreko urteko gastuen balantzea eta egindako lanaren memoria aurkeztu beharko du OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAk, hurrengo urteko diru-laguntza jaso ahal izateko.

Hurrengo urteko urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute honako dokumentazioa:

- Aurreko urteko memoria.
- Emaizta ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jaso eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo diru-laguntzak, adierazita bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitortpena gehituko zaio, elkarteko ordezkariak sinatuta.
- Faktura, agiri edo erreziboen kopiak eta horien ordainketa agiriak ere bai.
- Jasotako beste diru-laguntzen agiriak edo, diru-laguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitortpena.
- Ogasun eta gizarte segurantzarekin zorrik ez dutela egiaztatzen duten agiriak, baldin eta udalari berak kontsultatzeko baimenik ematen ez badiote.



Bergarako
Udala

5.- Jarraipen-batzordea

Jarraipen batzorde bat osatuko da, hitzarmen hau garatzerakoan izan litezkeen interpretazio-arazoak eta bestelakoak konpontzeko. Batzorde hori paritariora izango da eta lau kidek osatuko dute: Udalak izendatutako bi eta **OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTE**ak izendatutako beste bi.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, batzordea bi aldeetako edozeinek proposatuta bilduko da behar den guztietan, jarduerak zehazteko edo ustekabeak konpontzeko.

6.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazio eta garapena ordenamendu juridiko-administratiboaren arabera egingo da.

Hitzarmen honetan jasotzen ez denerako administrazio arloko legeriara joko da; bereziki, hauetara: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa, lege hori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 errege Dekretua eta Bergarako aurrekontuetako udal araua, halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Prozedura Administrazio Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzkoa.

Hitzarmen hau ez betetzearen ondorioz sortutako auziak ebazteko eskuduntza Administrazio Auzietarako Epaitegi eta Auzitegiarena izango da.

7.- Hitzarmenaren eraginak eta indarraldia

Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietara, ez besterik.

Hitzarmenak eragina izango du eta sinatzaileak behartuko ditu 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 arte.

Bi aldeak ados agertuz gero, hitzarmena urtez urte luzatu ahal izango da legeak ezartzen dituen mugen barruan gehienez ere beste hiru urtez.

Adostasun-seinale, hitzarmenaren bi ale sinatzen ditugu, goian aipatutako tokian eta egunean.

Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea

Amaia Etxabe Goikoetxea
OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK
SUSTATZEKO ELKARTEko lehendakaria

